

ARTEA IKASTOLAN
anjel lertxundi — imanol urbieta

Zenbait arazo teoriko interesgarri iduritzen zaigu oso, eta azterketa jator baten beharretan dela deritzagu. Baina hainbat arazo teoriko sortu dituen Euskal Herria zenbait “praxis” beharrezko ahaztutzen ari dela, hortxe ideia sakonen hurkamen-dietan zintzilikatzen ari garela, dialektika hutsean murgildu gaituztela eta arazo konkretu honi ekin diogu.

Orain artearen eta artearentzat izanen litzakeen heziketaren problema ukitzen badugu, ez da, ez, artista batzuk sortzearen antsiarekin. Utz dezagun alde batera artista egin ala jaio egiten zaigunaren arazo hau: Gure interes guzia nortasun baten lorketa besterik ez da; nortasuna gaur, eta nortasuna bihar, helburu, oinarri.

Ez da artea edo *gusto ona* erakustearen arazoa. Artea ez da asignatura bat. Artearen eta artearentzako den heziketaz idaz-

terakoan, heziketarako forma konkretu, metodu jakin, biziera ezagun, ikastolaren ekintza beharrezko batean pentsatzen ari gara.

Honela, lehendabizi berezi beharko genukeena irakaskintza eta heziketa lirake. Lana luze joanen litzaziguke eta horregatik ideia oso laburrean azalduko dugu: Irakaskintza, gauza asko erakustean oinarritzen da; heziketa, gauzak sakontzean. Irakaskintzaren fruituak erraz neurtzen dira; heziketarenak ez dira neurtzen. Irakaskintza ojetibua da. Heziketa ojetibu eta sujetibua. Heziketa, hitz batean, estilo bat da.

Espainiako Lege Berriak zer ekarriko digun esatea gauza zaila da oraindik; baina orain arte genuen Legea, irakaskintzarako lege bat zen, uniformidaderik gabea. Berez bazuen uniformidatea, guk txikitari ezagutu genuena, gerra ondorengo batasun politikoarena. Baina urteen joanetorrian kolegioek eraman dute aurrera irakaskintza ofiziala, eta erlijiosoei ez zaie gehiegi komeni izan uniformidade politiko hori mantentzea. Honela, azken urteetako irakaskintza ofiziala aseptikoa genuen erabat.

Alderdi askotatik osa genezake heziketa. Uniformidade edo irakaskintza politikoa aipatu dugu. Gogora dakarkizuegu baitare erlijioaren alderditik seminarioetan osatu den heziketa. Baina garbi ikusten dugu alderdi hauek partzial gertatzen zaizkigula eta zerbait usaingarriago, osagarriago behar dugula.

IRAKASLEA ETA ARTE-EKINTZA

Hizkuntza plastikoa desarroilatu ezin dugunean, ikus-moldeetako hizkuntza jaiotzen zaigu, imajinaren kultura. Gizon helduak, bere haurtzaroko hizkuntza plastikoa gelditu den gizon helduak, ez du bere hizkuntza hori beste zenbait bizimolderen arauetan mailatu, eta

txundituta gelditzen zaigu paper zuri baten aurrean, zer egin behar duen ez dakien antzerkolari bat bezala (1).

Saint-Exupéry-k ere errealidade berdina dakarkigu:

Zenbakiak laket zaizkie gizon helduei. Lagun bati buruz hitzegiten ari direnean, ez dute ezer berezirik galdetzen. Ez dute behinere **zein abots du?** edo **zein joku gustatzen zaizkio?** edo **tximeletak maite ahal ditu?** galdetzen. Galdetzen dutena, **zenbat urte ditu?**, **zenbat anaia?**, **bere pixua?**, **zein da bere aitaren irabazia?** Dirudienez, galdera hauen bitartez bakarrik ezagutuko dute laguna. Gizon edadetuekin hitzegiterakoan, **Etxe polit bat ikusi dut; ladrilo gorriak, loreak leihoan, uxoak teilatuan...** esaten badugu, ez dute etxea nolakoa den ezagutuko. Esan behar duguna: **Miloi bat balio duen etxea ikusi dut.** Orduan bakarrik erantzuten dute: **A ze zoriona!** (2).

Heziketa artistikoaren oinarri zuzenena *espresio bideen kultura* datzala uste dugu, R. Gloton-ek baieztatzen digun bezala (3).

Baina espresio bideen kultura hau ezin da ordu konkretu batean eraman, ezta goitik aginduta antolatu ere. Honek esan nahi duen bakarra, irakasleak espresio bideak ongi menperatu behar dituela, sensibilitateaz erabili behar dituela, eta bere eta haurren nortasunerako behar dutela izan. Beraz, heziketa artistikoa ez da asig-natura bat edo erabateko teknika bat, espresio askatu eta pertsonal baten bilaketa, ikastola ekintzaile baten ondorea baizik. Heziketa artistikoa ikastola askatu eta aktibu batean bakarrik eraman liteke eta ikastola askatu baten arau eta irekitasunean sakontzen da (4). Horregatik ikastolaren bizitzarekiko eta gizartearen ekintzare-

(1) D. WIDLOCHER, *L'interprétation des dessins d'enfants*, Bruxelles, Charles Dessart ed., 1965, 266 h.

(2) O. FULLAT-ek alpatua, *Reflexiones en torno a la educación*, Barcelona, Nova Terra ed., 1966, 61 h.

(3) R. GLOTON *L'art à l'école*, Paris, Presses Universitaires de France, 1965, 85 h.

(4) R. GLOTON aip. lib., 85 h.

kiko irekitasunak espresio-bilaketaren lan luze eta sorketa personal bihurtzen ditu ikastolaren orduak.

Irekitasuna: Ikastolak bere ateak ireki behar dizkio zenbait gauza berriri, eta lehendik hartua dugun zenbait gauza eraberritu behar dugu. Gizartea aurrerabide denez gero, ikastola ere ezin lege honetatik at gelditu. Baina honetarako, lege berri baten premia oso urrutikoa da, ez dugu ezta ere espezialisten beharrik, nahiz eta bi gauzok oso garrantzizkoak izan. Beharrezkoena, irakasle buru argi baten lana, nora doan, zein helburu duen, zein bide aukeratu behar dituen dakien irakasle baten lana.

Beraz, orain arteko irakaskintza pentsamoldeetan haurra zen lana egin beharrekoa, baina egun konturatuak gara batezere irakasleak egin beharko duela lana.

Foulquie-k honela laburtu du Ikastola Berria deritzan europar zenbait irakaskintza molde berri:

- 1.—Heziketa da garrantzizkoen.
- 2.—Pedagogiak psikologian oinarritua behar du izan.
- 3.—Heziketak haurrak behar ditu izan ardatz (Ez politika, ez erlijioa...).
- 4.—Haurrak askatasun osoa behar du lanerako.
- 5.—Haurrak giro naturala behar du. Berea. Ikastolak ez du behinere aparteko gauza izan behar, "hor" dagoen eta beharrezko duen zerbait, berea orduetako zerbait naturala baizik.
- 6.—Banakako heziketa prestatu behar dugu talde-giro batean.

Konturatzen gara arau hauek oso jenerikoak direla, baina giro berri bat aurkitu beharrean gara. Eta giro berri hau "askatasun" hitz zailean laburtuko genuke. Batak beste, tekniko bakoitzak oso era ezberdinetan laburtzen ditu bere "agindu" nagusiak, baina denak konformatzen dira ideia sakonenetan. Hona hemen, baitare, Françoise Chätelin-en laburpena:

- 1.—Ondo ezagutu behar da haur bakoitza. (Gaurko Lege Berriak test oso sakonetara behartzen gaitu).
- 2.—Haurraren ekintza-bideak esnatu, iratzarri, behar ditugu. *Ekin arazi.*
- 3.—Irakasleak gidari izan behar du eta ez zaitzaile.
- 4.—Irakasleak ez du bere interesetan oinarritu behar, haurraren interesetan baizik.
- 5.—Ikastolak bizitzari ireki behar dizkio bere ateak: Ez dugu *behinere* liburutik hartu behar haurrak bere bizitzan erraz aurkitu lezakeena.
- 6.—Haurra ez da modelu batzuetara jarri behar. Ez da uniformatu behar.
- 7.—Irakasleek abentura-zale behar dute izan, gure giroa bizitzeko meriorik sakonena abentura-prestasuna bait da.

Azken arau hau irakasleentzako eta gurasoentzako emandako araua da (5).

Haurra benetan askatzea da heziketa artistikoak proposatzen duen bakarra. Haurrak sorketa mailan ibeni behar ditugu, errealidadearen bideak ireki behar dizkiegu haurrei.

Haurra horregatixe ezagutu beharko da ongi eta ezagutu beharko bere interesak, interes horien oinarri eta ondorenak.

Halare, kontuz ibili beharra dadukagu: Irakaslearen erru handiegia litzake interes horiek berez sendotuko direla pentsatzea. Haurraren nortasuna errespetatu behar dugula ez du baztertu egin behar dugula adierazten, bere laguntzarako prestatu behar dugula baizik. *Irakasleak gidari behar du izan eta ez zaitzaile.* Haurraren nortasunaren heziketak sortzen duen arazoa ez da irakasleak parte hartu behar duen edo ez jakitea. Irakasleak parte hartu behar du. Arazoa, parte nola hartu izanen litzake.

(5) RENZO TITONE *Metodologia didáctica*, Madrid, Rialp ed., 1969, 25 h.

ERAGOZPENAK

1.—Programa ofizialari amor eman behar zaiola, eta arteari eskainitako orduak hutsean gelditzen zaizkigu. Hau zenbait irakasleren ustea. Baina, eta geroago ikusiko dugu, ez da orduen arazoa, metoduarena baizik.

Ez da posible —**esaten du R. Gloton-ek**— ekintzaren batasunik gabeko heziketa. Heziketa-sistema ez da behinere mosaiko bat edo arlekin baten jantzia. Heziketari multzo batu eta koerentea deritzagu (6).

Garbi dago, beraz, orduen arazo hau metoduen programazioarekin zuzendu beharko genukeela. Guk proposatzen dugun heziketa hau ez da orduen bidez salbatzen, programazio konkretu eta metodo jakin batzuen bidez baizik.

2.—Teknikeria.

Halare, garbitu beharra dadukagu: Guk artea ez dugu helburutzat jotzen, hezikeratako meriotzat baizik.

Beharrezkoa zaigu teknika bat artean hezitzeko. Ezinezkoa da giza-ekintzetan teknikarik gabe aurrera jotzea. Baina teknikak bideak ireki behar ditu, teknikak ez du behinere helburu izan behar. Teknikak —arteak—, metoduari eta helburuari serbitu behar dio; kasu honetan, heziketari serbitu beharko dio.

Beraz, heziketa-moldeen barnean artearen programazio sakon bat proposatzen dugunean, ez dugu asignatura bat proposatzen, izpiritu eta biziera konkretu batzuk baizik. Nolabait adierazteko:

Jakintza praktiko eta espresio-ekintza pertsonalak sensibilitate biziago eta sakonagoaz hartu. Haurrak ikas dezala ahal dugun neurrian bere beharrak sakonki ezagutzen eta bere barren-barrengo interesak betetzen (7).

(6) R. GLOTON aip. lib., 79-80 h.

(7) BRIAN M. FOSS *I nuovi orizzonti della psicologia*, Torino 1968, Borin-ghieri ed., 179 h.

3.—Utilitarismoa.

Heziketa artistikoak ondo ezagutu behar du gure mundua. Alegia, ez dadila gure mojetxetako piano-ordua izan. Industrial irakaskintzak ez du material edo denboraren galerarik onartzen. Halare, gure industrial irakaskintza ez dago gizonaren serbitzuan, produzioaren serbitzuan baizik. Gogoratu beharra dadukagu Euskal Herriko *Escuela Profesional* delakoetan gertatu dena.

Pertsonaren serbitzuan jartzeko proposatzen dugu heziketa artistikoa. Artearen bidez oso zail jarriko gara produzioaren menpean. Halare, irakaslearen lana izanen litzake gure munduko utilitarismoaren ondore onak hartu eta haiek mantentzen erakustea. Adibidez, orduak eta materialak probetxatzeko unean.

4.—Agintekeria.

Gure haurrak ekitera ohitu ditugu eta ez sortzera, nahiz eta euskeraz *ekin* hitzak *sortze* hitzaren sentidu berdintsua ukan. Gure haurrek ezin dute ezer berririk eman guk ematearen bideak histen badizkiegu.

Hau gertatzen denean, haur geldiak, jaso bakarrik egiten duten haurrak, bere inguruan parte hartu nahi ez duenaren obedientziaz jantzitako haurrak osatzen ditugu.

Irakasle honak haurrak lanean jarri beharko ditu; eta ez du bere lana kritikatu. Haurrari gauzak berez jasotzen erakutsiko dio; ez dizkio gauza horiek **eginak** eman behar. Proposatu, agindu beharrean. Haurrak ulertu eta bere mailan ibeni, haurrak bere programazioan duen maila batean jarri gabe (8).

Artearen heziketa batek izan ditzakeen eragozpenen laburpen bat egiterakoan, A. J. Cropley-k bere *La Creativité* liburuan ikastola ofizialei egiten dien kritika hau azaltzen du:

(8) PH. MALRIBU, *La construction de l'iminaire*, Bruxelles, Charles Dessart ed., 1967, 171-172.

1.—Exitoaren menpean jartzen den ikaslearen ondoreak izaten dira onartuenak. Ikasle honek, halare, ez du ezer sortuko. Eginen duen bakarra, ematen zaion guzia jasotzea izanen da.

2.—Kanpoko kriterioez zuzenduta dago horrelako haurra. Liburuak dakarrenaren edo irakasleak esaten duenaren berdina izanen da haurra. Molde jakin batzuetan osatua. (Cropley-k ondo aztertzen du Euskal Herriko egungo zenbait irakasleren arazoa: Gizarteak bere serbitzurako prestatzen ditu ikastolak. Zenbait kasutan gu ez gaude ados gizarte horrekin. Eskubiderik ba ahal dugu gure haurrak guk gorrotatzen dugun gizarte burges baten erantzunean jartzeko? Eta hemendik datorrigu, gure ustez, Euskal Herriko ikastolek bizi duten zenbait eta zenbait arazo).

3.—Sistima hitsi eta logiko batez borobilduak daude ikastola gehienak. Konformismora prestatu eta estandarizatutako modelu batzutura jartzen ditu haurrak. Gelaren portaeratik at dagoen haurra anormaltzat edukiko genuke eta ikastola hitsi honen indar guzia haur diberjente eta "anormal" honen bizkarrean eroriko litzake.

4.—Jokoa eta lana ondo bereztuta daude gure kulturaren eta gure ikastoletan. Lana, serioa, sakona da. Jokoa, arina da, kezkarik gabekoa. Lana eta jokoa ez dira behinere nahasiko. Haurrak, perspektiba honetan, ezin du pentsatu bere imajinazioak, logika guztietatik kanpoko lan askatuak, humore eta bihurkeriak, ikastolaren lan serioarekin zer ikusirik dutenik. Inbestigatzea baztertu eta, lortzen dugun bakarra, jokoa ere molde serioetan sartzea (9).

Honela, haurrak aztertzerakoan, erabat ahaztua dugu diberjentzia. Zenbait eta zenbait haur diberjentea dugu, baina guti kezkatzen gara. Eta ez da hau, prestatzen ez ditugulako bakarrik

(9) A. J. CROPLEY *La creatività*, La Nuova Italia ed., Torino, 1965, 25 h.

ulertzen. Askotan badakigu zelan jokatu, baina haur dibertenteak, zerbait "berria" eman lezaketen haurrak, zailak zaizkigu, estra-baganteak. Ikastolaren ordena —*guk* ikastolan ibenitako ordena— apurtzen dute. Haur bat burua margotzen aspertuta zegoen, eta behin buru hori barrendik margotu zuen. Jakina, zirriboilo bat besterik ez zuen egin. Baina haur harek marrazki orduetako ordena hautsi egin zuen eta zigortua izan zen.

Gure gizarteak ez ditu dibertentziak onartzen. Gure ikastolak ez ditu dibertentziak onartzen. Hippy bat edo burua barrendik margotu nahi duen haurra. Pentsamolde jakin, bizimodu ezagun, jokaera lagun guziak hausten ditu honelako gizaki batek.

Bestez, euskal literaturaz hainbat eta hainbat hitzegiten dugun garai honetan, heziketa aparteko bat beharko dugu gure ikastoletan gure kultura aurrera eramateko. Gu hondoratuta gaude, erdibituta. Gure gurasoen eta gure semeen artean erdibituen gizarte bat osatzen dugu. Eta gure ikastoletako heziketa berezia izanen litzake apurketa honen erremerio bakarra, gure kulturaren eusgarria. Bestez, gizonak osatzerakoan ere, eta Lege berriak ulertua du alderdi hau, hizkuntzak —edozein hizkuntzak— duen garrantzia onartu beharko genuke. Gure ikastoletako arte-heziketa guzia marrazkian eta abestian oinarritzen da. Baina, gure ustez, hizkuntza, hitza, da izan arte-heziketa guzian garantizkoena. Hizkuntza sorketa mailan hartu behar dugu, eta sorketa mailan hartzen dugunean bakarrik lortuko dugu edozein hizkuntza salbatzea. Oso erraza da hizkuntzaren oinarri teknikoa erakustea. Analisisa. Baina gure ikastoletako haurrak sintesi baten beharrean aurkitzen dira. Zergatik? Sintesi guzia erderaz hartua dutelako. Pentsa haurren hizkuntza —jokoetakoa adibidez— erderaz osatua dutela. Eta pentsakizun hauek heziketari buruz mintzatzen garenean azaltzen baditugu, zer esanik ez politikaren perspektibetan jartzen garenean. Dena dela, eta heziketari buruz berriro ere, berdinak esanen genituzke euskeraren arazorik izanen ez bagenu ere. Hizkuntza da

espresio bide jatorrena, eta badirudi arazo zailegia egin dugula pondu honekin. Adibidez, bilinguismoa aztertzerakoan. Baina jakina da bilinguismoak espresio aldetik dakarkien zailtasuna. Eta, honetan ari garenez, gure ikastoletan arrisku handia dago gehiegi pentsatu gabe erderara jotzeko. Eta zenbait kasutan gertatua zaigu. Programazio ofizial bati begira gaude, eta programaziotik at zenbait gauza egin beharrak bere arriskuak badakazki ere, arrisku handiagoak dakazki gurekin kontatu gabe egindako programazio batekin konformatzeak.

METODUA

Irakaslearen lana da haurrengan agintea bera baino aurreagoko eguzkiari begiratzeko irrikia esnatzea. Arazo guzia, hau nola lortu, gidaritzarik baztertu gabe (10).

Ikastola berriaren —Nuova Scuola— sentiduari dagokionez, bizitza eta jakintzaren arteko lokarriak sendotu beharko ditugu, haurren interesen eta lortu behar diren baloreen arteko eraztuna jantzi beharko, ikastola “heziketarako laboratoriora” izanen litza-keen lan-molde bihurtuaz. Irakasleak isilean, izkutuan lagundu beharko du eta taldeen eta haur pertsonalaren harremanak zuzendu. Honela ikastolak bizitza eta optimismo berriak hartzen ditu, espresio pertsonal eta askatu baten bila dabilen sorketa-lan serio batean murgiltzen da.

Lehendabiziko arriskua: Ekintza hau desorden bilakatzea. Hemen eta pondu honetan batezere ikusten da irakaslearen beharra: Legeak, edozein jokok behar dituen erregelak bezala direla azaltzen ahalegindu behar du irakasleak.

Diziplina ez da haurrak bere lanarekin eta bere lagunekin ekintzarako beharrezko duen tresna besterik. Haurrak lana eta

(10) A. J. CROPLEY aip. lib., 100 h.

lagunak behar dituela dakienean, berak proposatzen ditu jokorako legeak. Lan guzia, lege hauek haurrak berak proposatzen zaitzea izanen litzake.

Honela, diziplina ere sorketa-ekintza bezala hartzen badute, ikastolak giro berezi bat sortuko du eta giro berezi hau *segurantz* *sikologikoa* izanen litzake Carl Rogers sikologoaren hitzetan.

Heziketa honen oinarri eta funtsa, artea gure ikastoletako irakaskintza maila guzian integratzea litzake.